

# **I.– KANTA ZARRAK ARTXULO BASERRIAN**



**JOSE MAIZA**

**TA**

**MARI KRUTZ AUZMENDI**

**(ARTXULO-URBASA)**



**JOSE MAIZA**

**TA**

**MARI KRUTZ AUZMENDI**

**(ARTXULO-URBASA)**

# I.- KANTA ZARRAK ARTXULO BASERRIAN

## IRU GAUZA BATERA

Iru gauza batu bear ditugu idazlan onetan: Egun berexi bat ustegabe batekin, esan andiko baserria ta basetxe onen emaitza ederra. Iru alderdi oiek, ondo lotuak gelditzen dire lan onetan.

## EGUN BEREXI BAT

Bein aspaldi, Nafarroa'n, euskal iturrien billa nenbillen. Etxarri-Aranaz'ko errian erromes egun zoragarria izaten zutela jakin nuen; San Adrian'go baselizera. Berria Jose Maria Satrustegi'k eman zidan ain zuzen. Jai ortaz entzun eta 1972'garren urtean joan nintzen eta egun zoragarri ura, "Naparroa Euskal Arrobia" delako nere liburuaren atal batean geldituko da betiko esana. Jose Mari Satrustegi'rekin, antxen nintzen eta erriko gizonekin mintzatu giñen. Gizon berexi bat ezagutu nuen; Jose Maiza. Nere ondora etorri zen. Garrantzi andiko berria eman zidan: etxean abesten zutela San Migel'en kanta eder bat. Garai artan Aralar'ko San Migel'eri buruz liburuxka bat idazten nenbillen. Orregatik zen ain garrantzi andikoa Jose Maiza'ren berria.

Alaxe, beartuta bizpauru aldiz joan nintzen Jose Maiza'ren etxera, Aralar'ko San Migel'en kanta zarra ezagutzera ta jasotzera.

Esan bezala, ustekabian, egun orretan, garrantzi andiko gizona, erri mallekoa arkitu nuen, lan onen iturria. Geroztik gizon atsegin au maiz ikusi dut Etxarri-Aranaz'en. Garai artan bi etxe zituzten errian bizitzeko; bat urruti Urbasa'n eta bestea errian bertan, emengo kaleko etxea zen.

## BASERRI ARRIGARRIA

Jose Maiza'ren sendia "Artxulo" izeneko baserrian sortu da. "Artxulo" baserria Etxarri-Aranaz'en dago, Urbasa'n ondo ezarria, Arzabaingo malakorpean, erritik urruti.

Zergatik deitzen dugu "Artxulo" baserria? Urte asko egin ditu an, sendi batek. Senide anitz bertan jaioak dire. Bizitza bertako lurretik ateratzen zuten; ba zituzten amalau bei larrean ibiltzen zirenak, baita ere artaldea eun burukoa.

Ba dauka zerbait oso berexia baserri onek. Azken euskal baserria da Nafarroa'n egoaldeti. Inguruko erri euskaldunak Lizarraga ta Bakaikoa ditu. Egoaldera berriz Lezaun datza, era bat erdalduna. Emen euskara aspaldi galdu zen. Lezaun, Dierri (Yerri) delako ibarraren Ipar aldean dago. Orregatik deitzen dugu: “Artxulo, Ego aldetik Nafarroa’ko azken baserria”.

## **EUSKAL KULTURAREN MINTEGIA**

Arritzekoa, gañera egia: baserri onetan bildu ditut ogeitabi kanta zarrak asiera artan. Etxe gutxi izango dire Euskalerrian beste ainbeste esan dezaketenak: orrenbeste kanta zar ederrak esaten dituztenak bertan. Aoz gorde dituzte gaur arte.

Oraindik aundiagoa da jakitea, kantu zar oietik, geientsuenak ez eza-gunak direla, oraindik, edo obeto esanda, gaur arte jaso gabeak.

Berri ori altxatu ondotik ikasi dugu “Artxulo” baserria Etxarri-Aranaz'en eredu dela, euskal kulturaren egitazko iturriarena. “Artxulo” baserriari eskerrak, euskal erri kultura ederragoa agertzen zaigu. Orrexek egiten du baserri onen aberastasuna ta berexitasuna.

## **JOSE MAIZA'REN SENDIA EUSKAL KOBLARIAK**

Sendi onetan gauza bat ikusten zen garbiasko: koblariak zirala. Aitak eta amak, bakotzak beren aldetik abestutzen zituzten kanta zarrak. Tartean ere sartzan zen, pozik, seme-alaben bat.

Nere aldetik, Aralar'ko San Migel'en kantu zarraren atzetik nenbillen itsu itsuan: asieran, garrantzi aundiko gauza ura bakarrik ikusten nuen. Lenengo egun aren ondotik, bertze aldi ezberdiñetan asi ziren kantu berri batzuek abesten, baita ni ere, esaten zituzten guztiak idazten. Orrela bildu nituen amasei orrialde eskuz egiñak. Makinaz garbirik idatziak utzi nituen. Andik gutxira atzerrira joatea erabaki nuen. Asmatu ta egin. Paris, New York, Ciudad Juarez-El Paso (Mexiko-Texas) iru iri oietan bizitzen ogei urte igaro dire. Kanta zar oiek ez ditut eskutik utzi. Urte luze oietan asti zatitxo bat kanta oiek ikertzeko billatuko nuela uste bai, bainan utsean. Maiza'trren etxean bildutako kantu oiek aztertzeke astirik ez zen agertzen. Ez ikertzeko, ezta ere idazteko aukerarik. Asmo ori betetzeko astirik ezin billatu. Ala guztiz ere paper oiek ez ditut eskutik utzi, ez zaizkit galdu. Ogei urteko atzerriko ibillialdiak nerekin egin dituzte. Lanpetua nenbillen.

Euskalerrira itzulita, paper oiek aztertu bear nitula, iduritu zitzaidan. Ogei urte oietan, paperetan zeuden berriak aztuak, utsune ortik ateratzearren, urrats batzuek eman bear. Aurrena, gai ortan dakitenei, kanta zar oien garrantzia galdetu.

Bigarren: Jese Maiza'ren sendia bilduta, orain dela ogei urte jasotako berriak, ondo jasoak ote dauden galdetu.

Bi urrats nagusi oiek emanak ditut.

Eresi jakintza aldetik, "Euskal Ereslarien Elkartearen Etxean" ate joka ibilli nintzen. Baita erantzun guztiz ona jaso. Jon Baguez eta Beatriz Balerdi'k lagundu ninduten, baita ere esan eskuetan altxorra nuela. Biontzat nere eskerrik beroenak.

Jose Maiza'ren sendiarekin ere izan naiz, senide geientsuenak bildu ziren eta oso ondo artu ninduten. Aien gurasoak emandako berriak erakutsi nizkien, baita eskatutako argibideak agertu.

Inguru guzti ori gogoan artuta, lan au egitekotan nago era bat etsia.

Lan onen oñarria auxe da: sendi abeslari baten aurrean gaude. Jose Maiza 1973'garren urtean 63 urte ditu. Bere lengusuarekin ezkondua dago, Maria Krutz Auzmendi'rekin. Emaztea Artxulo'n jaioa da eta senarra baño urte bat geiago dauka. Biek koblariak ziren.

## SENDIAREN ERROAK

Jose Maiza'ren ama, Josefa Auzmendi zen, Artxulo'n jaioa.

Beste aldetik, Jose Auzmendi'ren emaztearen aita, Maria Krutz Auzmendi'ren emaztearen aita, Maria Krutz Auzmendi'ren aita ain zuzen, Pedro Auzmendi Etxarri zen, Artxulo'n jaioa baita ere.

Orrela ikusten dugu, Jose Maiza'ren ama, Josefa Auzmendi ta Jose Maiza'ren emaztearen aita, Maria Krutz Auzmendi'rena, Pedro Auzmendi Etxarri zen: Josefa Auzmendi ta Pedro Auzmendi anai arrebak dire, biek Artxulo'n jaioak.

Azken bi auen aita, Pedro Auzmendi ta Josefa Auzmendi'rena, Domingo Auzmendi zen. Azken au, Domingo Auzmendi'rena baita ere.

Garbi ikusteko sendi onen adarrak agertzen ditugu:

<u>Jose Maiza Auzmendi</u> (senarra)	+	<u>Mari Krutz Auzmendi</u> (emaztea)
Ama: Josefa Auzmendi		Aita: Pedro Auzmendi
Anai-Arrebak		

Gure senar-emazteak, aitona berdiña dute = DOMINGO AUZMENDI GARZIANDIA.

Nor da aitona DOMINGO AUZMENDI GARZIANDIA? Berez Ataun'darra. IRONIZ baseritik etorria. Mendi muturrean zegoen baserri au. Orain ez da iñor bizi.

Eskolik gabeko mutilla zen. Berez koblaria, baita sendiko kanta zar askoren iturri. Kanta batzuek elizakoak dire bestiek berriz txerri jaieta-koak, jatordokoak, baita beste batzuek berak asmatutakoak. Ba zituen buruz ikasiak.

Aitona Domingo Auzmendi, "Artxulo'ra" ezkondu zen eta kanta zar eta berrien giroa sortu zuen bertan. Artxulo'n datozkion senideak doai ori gogotik lantzen dute. Orretzek egiten du Artxulo'ko sendi au ain arrigarria.

## KANTA ZARREN XORTA

Esan bezala, sendi onetan aitona Domingo Ataun'darra genuen kanta zarren iturria, eta senide geientsuenak koblariak ziren.

Gai askotako abesti zarrak dituzte. Kanta zar oien artean asko elizako girokoak ditugu, adibidez "San Migel'ena" edo "Arantzazu" delakoa.

Oso ezagunak ere ba ditutu, Etxarri-Aranaz'en, euskal jaietan erabiliak, batez ere Josepa Eizmendi'k.

Kanta batzuek luze xamarrek dire, besteak laburrak. Andiak, lau errenkatik gorakoak deituko ditugu, eta txikiak ordik beragokoak. Denak erabili lako ditugu, baita ere aztertuko. Entzun nituen bezala jasoko ditut.

Senide bakoetak ez dakizkitez kanta denak. Senide bakoetak bizpairu kanta ezagutzen dituzte. Denen artean pilla ederra ezagutzen eta abesten dituzte. Aurretik ezagunenak aterako dire, ondotik besteak, kondarran antzekoak eta azkenean puxka batzuek; buruan gordeta zeuzkaten bezala. Entzundako denak jaso nituen, bitxi andi bat ba'litz bezala. Denak gañera etxe batekoak. Dena ondo bildu bearra.

## JOSE MAIZA'REN BERRIAK

1910'garren urtean Etxarri-Aranaz'en jaio zen.

Esan bezala, San Adrian'go erromerian 1972-VI-21'an ezagutu nuen. Oso gizon atsegiña zen; irekia, ona.

Amairu urte zitula, 1923'garren urtea oso berexia izan zen. Izen aundiko Euskal Festetan Etxarri-Aranaz'en, Jose Maiza'ren ama, Josefa Auzmendi ain zuzen, jaialdiaren lekuko izan zen. Bi aizpek agertu ziren euskal festetan. Ba daude garai artako argazkiak eta antxe ikusten dire bi aizpak. Jaialdiaren gertakizuna aitortzen dute. Artxulo'ko alaba jaialdi orretan saritua ibilli zen.

Soldaduska garaia etorri zitzaionean, Arantzazu'ra bere amarekin eta bi kintoekin, baita gizaseme saillarekin agindu bat betetzera joan zen, ta San Migel'era, urte berean. Beste urteetan, San Migel'en egunean, Huar-te Arakil'en kanta zar ori abesten zuen edantokian, baita goien San Migel'en bazkaltzeko garaian.

Emezortzi urte, Legazpi'n "Etxeberria" delako lantegian lana egin zuen, zartzaroa jaso arte.

Etxeko kanta zarrak, artatxuriketan zebilzkiten, gaua luze aietan.

Jose Maiza oso eliztarra zen.

Elizgiroko kanta zarrak katekesis ba'litz bezala abestutzen zituzten. Beizai zeudela kantari zebilztzan.

Beste kanta zar asko artoak zuritzen egiten ziren; adibidez "San Jose'rena", "Jesuskristoren zauriak" delakoa eta abar.

Jose Maiza ibilkari andia zen. San Migel'era Legazpi'tik zortzi orduz sartzen zen.

Kristau ziñezkoa genuen. "Sortzez Garbia" delako jai nagusian, egun artan bi aldiz joaten zen mezetara.

1985'garren urtean il zen 77 urteekin; bere emaztea lenago, 1978'garren urtean 70 urteekin.

## **SENDIAREN ABESTIAK**

Kanta zarren bilduma egingo dugu, esan ziguten bezala agertuaz. Dena dela errenkan azalduko ditugu. Denak elkarrekin jarrita, andiak eta txikiak ogeitabat dire.

Bi gai nagusietan ezberdintzen dire: eliz giroko kanta eta karrikakoak.

Nortzuk abestutzen zituzten etxean esango dugu edo ze senideek eza-gutzen zituzten eta aiek esan zizkiguten bezala.

## **ABESLARIEN ZERRENDA**

Kanta zarren berriemalleak jakitea bearrezkoa deritzaigu. Abesti bakotzak bere abeslaria dauka. Orrexek agertzen digu etxe ortako senideen doaiak.

Josepa Auzmendi'ri entzunak (Jose Maiza'ren amari):

ARANTZAZUKOA  
TXEKORRENA  
LEKUNBERRIKOA  
OTSOAK ASTUA NAI ZUEN  
"DOS VEINTICIENTOS GITANOS"  
EUSKAL JOTA  
JESUS MAITEA AIZKORRIN

Mari Kruz'ek aitari ikasiak, Pedro Auzmendi'ri:

GURUTZE SANTUA  
SAN JOSE'ri  
FRANTZESEN IDEA  
ALEMANAK ETA FRANTSESAK  
ARTZAI BATI  
AI, AI MUTILLAK

Jose Antonio Mendiola'ri ikasiak bi kanta. Jose antonio erriko gizon bat dugu. Errian elizaren atzian bizi zen. Jose Maiza'ren adiskidea da:

GALTZAK JARIO  
NOBIOENA

Maria Remedios Maiza, Jose Maiza'ren alaba dugu:

SUGANDILLA KUZKUR

Etxarri-Aranaz'en nunai zabalduak:

ITSASOAN  
ASKATXO



## “ARTXULO” BASERRIA

Ataun'dik Domingo Auzmendi ogei urteekin etorri zen Artxulo'ra. Amiñe Buruxurirekin ezkondu zen. Zazpi seme-alaba euki zituzten.

Artxulo baserrian beste bi langileekin lanean zebillen. Artxulo baserriak beste bi baserri zeuzkan inguruan: IRURA ta GARMENDIARENA.

Artxulo, Etxarri-Aranaz'ko lurretan dago, Urbasa aldetik Arzamendi malkorpean. Mendi gallurra ikusten da.

Baserri onetan amalau bei eukitzen zituzten, inguruetako basoetan, baita eun buruko artaldea mendian.

Ortxen etxera zetozela ezkondu ziren etxeko alaba, Mari Krutz Auzmendi ta onen lengusua Jose Maiza.

Zortzi seme-alaba euki zituzten Artxulo'n jaiioak.

Baserri orrek iturria bertan zeukan, Artxulo izenekoa.

## KANTA ZARREN AGERPENA

### I.- SAN MIGEL'EN KANTA ZAR BAT



Na - pa - rro - a' ko e - rri U -  
ar - te A - ra - kill' en, San Mi - gel' a joa -  
te - ko a - lle - ga - tu gi - ñen; pro -  
me - sa e - gi - te - ko de - se - o aun - di -  
en, men - di - ra i - go ga - be ez  
nu - en ja - ki - ñen Ain - ge - ru - a zei - ñen  
e - der ze - go - an ka - pi - llen.

## I

**“Naparroako erri Uarte Arakillen  
San Migel’a joateko allegatu giñen  
Promesa egiteko deseo aundien  
Mendira igo gabe ez nuen jakiñen  
Aingerue zeñen eder zegoan Kapillen.**

## II

**San Migel goien Aralar mendien  
ezpata altxaturik gure guardien  
kantatu nai nioke umore aundien  
Berak lagunduko dit oraingo aldien  
Beti izaten gera gu aren premien.**

## III

**Eskatu bear degu Jaunari grazia  
ondo explikatzeke kanta onen asia  
berak ikera dauka inperno guzia  
Aingeruan mendean ango nausia  
oinpean sarturikan ondo itxusia.**

## IV

**Aingeruak artzean eskuan ezpata  
Etsai gaiztuarentzat asmo okerra da  
Laister eman zioten gaixtoaren planta  
Oinpean sartu gabe nai zuan eskapa  
geiago egin aurren pagatutzen ezta.**

## V

**Aingeruak artzean Zeruko abisua  
laister botatzen ditu aideko egoak  
baita korritu ere bideko leguak  
manifestuan daude are milagroak  
baita kapillan ere bertan igaroa.**

## VI

**Aingerua jetxi zan gugatik mundura  
Eskola emateko Jaunaren modura  
Saiatu ikastera ordutik ordura  
maisua ona daukagu joateko zerura  
geiago salbatzeko onera eldu da.**

## VII

Orain formatu bear degu laster Erromara  
Penitentzia ekarri bertatik onera  
Konfesio on banarekin ori txit ona da  
Gure defensora Jauna ori bera da  
Salbatu biar degu iñola al ba da.

## VIII

Eliza eder onetan bear degu bizi  
ez degula joan bear emendik igesi  
pribilegio asko ark ditu merezi  
Aingeru guztietan Bera da nagusi.  
Zeruako bidea berari ikasi.

## IX

Zeruan ba dirade milloinka aingeru  
Danak an dabiltza Jaunaren inguru  
Prinzipala dalarik ba du zenbat gradu  
San Migel Aingerua guztietan buru  
biotzetik eskatu anparatuko du.

## X

Naparroko erreinu aundi ta noblea.  
Aingeruak or dauka Kapillen gordea  
asko estimatzen du mendiko lorea  
ez det errex topatzen Santu bat obea  
Guztiantzat ona da naiz izan pobrea.”

## OARRAK (SAN MIGEL'EN KANTARI BURUZ)

“Aralarko San Migel” delako nere liburuan, Jon Oñatibia'k jaso zuen doña argitaratu nuen. Zalantzarik gabe bitxi bat da.

Geroztik, joan den gizaldian Ipar aldean argitaratutako liburu batean kanta oneri dagokion berri bat jaso nuen (Abbé DARTAYET, Guide ou Manuel de la conversation et du style epistolaire français-basque, Landre editeur, Bayonne 1861). Atal buruak auxe esaten du: “San Miquelaco capillerat bidaia, Iruñeco euskaraz”. Lenengo aldia da “Iruñaco euskaraz” orrela esana ikusten nula; bai ikusi, baita ere irakurri. Esaten denez Miguel Berroeta'k egiña da.

Berroeta'ren kantaren asiera ta Artxulo'ko kantarena berdin berdiñak dire. Ara emen Berroeta'ren asiera:

**“Nafarroaren erri  
Huarte-Arkillen  
San Miguela yuateco  
Allegatu guiñen.  
Bisita eguiteco  
Deseo aundien.  
Mendira igo gabe  
Ez nuen yakinen  
Aingueru cein ederra  
Cegoen capillen.”**

Onen ondotik datozen bertsoak Artxulo'ko kanta zarrean, era bat ezberdintzen da gure kanta. Ikus nolako aldaketa egiten duen Berroetak'k:

**“Maiz eguin bear degu  
Bertara bisita  
Asco consolatcenda  
Gu an icusita.**

**Etchera badijoaz,  
Graciaz biteta;  
Consolatuco guera,  
Ceruan sartuta.  
Cantaren eguille  
Miguel Berroeta.”**

Bi kantan asiera berdiñak auxe esan nai digu: San Migel'en kanta zar askoren asiera izango zela. Asiera berdin berdiña, erria adi adi jartzeko, San Migel'en ipuia aстера zijoala jakiteko ta jaiari erriarekin batean ospatzen zela. Oitura zar baten asieraren tankera dauka. Santuaren egunak, oiturak, eta kanta zarrak bat egiten zuen.

Kanta zarren ezberdintasunak esan naiko du San Miguel'en abestiak, asko izango zirela aintziñako garai aietan. Asiera berdiñak entzuleak adi adi jartzeko ta jaiari asiera emateko zen.

Asiera orrek eskeintza baten giroan sartzen gaitu. Laguntza berexi bat eskatzen zitzaion santuari ta laguntza orren truke opariak ere eskeintzen zitzaizkion. Aintziñako garaietan “eskeintza edo promesa” giroak agintzen zuen. Erromeslaria lasai gelditzen da “promesa” betetzen duanean, emandako itza ondo osatzen du.

San Migel erriarekin lotua dago, ondo zaindu bearra dauka. San Migel'en lana erria babestea da. Gure aingeru aintzindariak ez du nai euskaldunetan iñor galduta edo zokoratuta geldi dedin.

Artxulo'ko kantak amabi kopia ditu, Berroeta'renak bi berri. Gure kanta onek auxe du mezua: aitortzera joateak indartzen du errukaria; biotzetik eskatu bear zaio Aingeruari laguntza.

Naparroa goraiatzten du; “erreinu aundi ta noblia”. Garrantzi andiko lurra da.

Santutegia, aingeruaren iduria gordetzeko toki berexia bezala egiña da ta ori garbi asko adierazten zaigu. Elizatxoak babesten du iduria; lapurrak ostu ez dezaten.

Kantu zarrak esandako guztien laburpena egiten du. Koblariak “promesa” ta Aingeruaren indarra dabilki gai berexi bezala. Zuzen zuzenean eskeintza ta babesaren eske abesten du.

Kanta zar onetan, egillearen eskua bersolarienetik olerkarienetik baño urbillago dago. Euskara errexa erabiltzen du, asmoak garbiak eta soilak. Erdal itzez betea agertzen zaigu: “allegatu”, “promesa”, “guardien”, “kantatu”, “umore”, “grazia”, “esplikatzeko”, “aingeru” eta abar eta abar. Itz bilduma bakotxak bost lerro ditu: danera 26 itz, oietatik zortzi erdal errotuak daude, irutik bat.

Kanta zar onek batez ere Goiaingeruaren nortasuna agertzen digu: Jainkoaren gudari indartsua, gudari trebea, aingeruen artean buru.

Azkenean, San Migel'en iduria toki txiki batean dagola aitortzen du. Orrekin esku zabalak izatea eskatzen zaigu.

San Migel'en kanta zar au, Etxarri-Aranaz'ko Jose Maiza'ri artua diogu. Euskal jator ta zintzo onek, Urbasa'ko magalean dagon Artxulo baserrian jaioa zen, Josepa Auzmendi bere amari ikasia du. Nunbait Jose'ren ama, noizbait San Migel'era igo zelarik, bere gazte garaian, aiton bateri, abesti zar au, kantari ari zela entzun omen zion. bein entzun eta etxera dena ikasita itzuli. Erriaren kultura, orain arte askotan, ala izan da.

Kanta au, euskal kutsu andikoa dugu, gure kultura ezagutzeko bearrezkoa, baita ere San Migel'en kondaira errian nola bizi den jakiteko bidezkoa.

Arritzekoa da, nola R.M. Azkue'k eta Aita Donosti'k ez zuten bildu onen antzekorik. Aralar'ko San Migel'eri buruz, ezagutzen ditugun guztietatik zarretakoa auxe izango da noski.

## II.– ARANZAZU

**“Artzai ontxo,  
nik zaituko ditut zure ardiak  
Santa Triako aitzian  
belartxo garbi batean  
Aita ori ere arotza data  
ermitatxo bat egiozu  
iru lata ta zazpi telletxu  
deitzen zaiola Aranzazu.**

**Au denborarekin izanen da ermita kuriooa  
ermita kuriooa ta komentu poderosoa  
zu ameika ama ta amaren umeak  
au izanen du ostatu  
au izanen du ostatu  
ta baita kaliza goratu.”**

### OARRAK (“ARANZAZU” KANTARI BURUZ)

Margolarien artean, baita idaztien lanetan, ludi osoan zabaldu den itz bat dagokio kanta onj; “Naif” izena da. Orrekin esan nai dugu “tolesgabea” dela kanta au. Izadi bat agertzen digu, gizarte soilla, biotz garbiarekin batean dijoana. Oso polita da, xamurtasuna ugari. Aranzazu’ko ingurua, argi ta garbi, agertzen digu: artzaia artaldearekin SanTriako aintzinean, elorri baten ondoan. Artzaiari elizatxo bat egiteko eskatzen dio. Askorentzat izanen da eliza ta ostatu.

“Ume asko biltzeko tokie ta Meza emateko”: orrekin giro baten ingurua ematen digu, gañera “kaliza” aipatzerakoan dena esana dago.

Euskara, errikoia, soila ta nastua (mestizua) erabiltzen du egilleak. Erdaradak errenkan jarri ditezke; ainbeste daude

“ermita kuriosue”

“komentu poderosue”.

Etxeko euskara da. Sakanako itzen laburpenak erabiltzen dire:

“zaituko = zainduko”

“Santa Triako = Trinidadeko”

“aitzian = aintzinean”

Gero garaia bizpairu aldiz agertzen da “en=IZANEN”, muga aldeko euskarak dion bezala, baita Naparroa’ko zati andi batek.

Kanta zar onek erri kutsua dauka. Itz batzuek ortaz mintzo dire; “ontxa”, “ameika” eta abar.

Elkar izketaren giroan esana dago; Artzaiari Amabirjina mintzo dela ikusten da. Onek bere artaldea zaintzeko asmoa agertzen du. Artzaiari buruz berriak ematen zaizkigu: “arotza data...”.

Amabirginak artzaiari agindu bat ematen dio: “arotza” bezala ermitatxoa egitea, “iru lata ta/zazpi telletsuekin”. Naiko tokia da Eukaristia ospatzeko. Orrela Aranzazu’ko asiera soilak agertzen digu.

Abestien bildumetan ez da agertzen kanta au. Iñorrek argitaratu gabe dago.

Kanta au luzeagoa izango zelakoan gaude. Emen zati baten aurrean gaudela deritzaigu.

Kanta onen mezu nagusia auxe da: Aranzazu’ko eliza Ambirginaren esanaren emaitza dela...

### III.– TXEKORRENA

**“Nei ikaritzen dit txekor onen plantak  
bestearen gisa ba ditu lau anak  
illea luzea ta ederra, galanta  
iru urte ba dira, au jaio zala  
ez dauka besterik ezurra ta azala  
Aita San Antoniok gizendu dezala.”**

### OARRAK (“TXEKORRENA” KANTA’RI BURUZ)

Sei lerroko bersoa dugu ta lerro bakotxak amabi izkin ditu.

Uste ez bezelako txekorra eskuratu ondotik, San Antonio’ri gizendu dezala eskatzen dio.

Parra-eragillearen giroa azaltzen digu.

Ez da beste iñun jasorik agertzen.

Bersoan antzera esana dago.

Otoitz baten giroan egiña dago kanta au. Otoitzlariaren buruan elburu bakarra; txekorra gizentzea.

Nolako itxura txarra daukan txekorrak esaten zaigu: “txekorraren plantak ba ditu lau anak”, doi doi bear duna zutik irauteko. “Illea luzea”, orrekin bere gisa bizi dela dio. “Adarra galantak”. Etekiña gabeko ezur legor ta uts oiek, ezertarako ona ez dela. Oraindik txekorra nolakoa den jakiteko, laburpen bat ematen zaigu: “ezurra ta azala, ez dauka besterik”. Bi itz oiekin dena esana dago.

Kanta zar onek, errian San Antonio’k daukan uste ona agertzen du. Abe-reak babesten nunbait indar andiak ditu, nekazarien artean.

Agertzen zaigun euskara, xea, errikoia, garbia ta bearrak argi agertzen dituna. Esaldi borobillak arkitzen ditugu egiñak. Berso zarren kutsua arkitzen diogu; aspaldikoa dela esango genuke.

Ezurretan dagon txekorrak, era bat aldatzea, itxaro du; San Antonio’k dauka erantzuna.

#### IV.– ANKA MOTZA

**“Itsasoan asi dire arbolak aldatzen  
anka motzak ba zakian bidean korritzen  
itsuak ikusi du etxea erretzen  
mutua berriz dago jendiari deitzen.”**

#### OARRAK (“ANKA MOTZA” KANTA’RI BURUZ)

Lau lerroko bersoa ta amabi izkinekoa dugu.

Etxarri-Aranaz’en asko ta nunai zabaldua dagola, diote.

Ametsezko idatzia dugu guk emen. Izatetik arront urruntzen da eta esaten ditun ereduakin parra eragin arazten du. Eziñezkoa dena, litekena bezala agertzen du: “itsasoan arbolak”, “anka motzak korrika”, “etxea erretzenitsuak dakus”, “mutua deika”. Eredu eziñezkoekin itxaropena zabaltzen du.

Ez dago beste iñun jasorik kanta zar au.

Esanai andiko itzak beste ikusbide batean ezarriak daude.

Euskara arront soilla da, bersolariarena bezalakoa. KANTA zar au oso laburra da bañan polita: irudimenaren mugak zabaltzen ditu ta lanean ari direnak, neurtzen laguntzen gaituzte. Barrengo argiak noraño argitu lezaiguken esaten digu. Aste utsak betetzeko ere gai polita. Barrena lasaitzeko naikoa ta adiskideari atsegin izateko egokia.

Irudiak indar andikoak, euskara soila da, ta erabiltzen dun doñuak bukaera berdiña du, errexena beti itz-aditza -ten’ekin amaitzen dela.

Garrantzitsuena auxe da: barrena lasaitzeari toki zabala egiten dio, itzen etorrerari ateak ondo zabaltzen dizkio.

#### V.– ASKOTXO ERAMAN NUEN

**“Askotxo eraman nuan  
ondotik pagatu nuan  
deskalabratu munduan  
neure ondotik pasa zan batek  
galdetu zidan zer nuan  
aber miñen bat al nuen  
nundikan sentitzen nuan  
planta onen bat jo nuan  
deskalabratu munduan.”**



## OARRAK (“ASKOTXO ERAMAN NUAN” KANTA’RI BURUZ)

Bederatzi lerro ditu kanta onek ta lerro bakotxak zortzi izkin gutxi gora bera.

“Askotxo” itz ori da berso auen giltzarria. Nunbait “askotxo” erosi zuen eta gaxorik ote dagon galdetzen diote. Ori da erriaren kezka.

Mundua “deskalabratua” dagola aitortzen du. “Deskalabratu” itz ori “askotxo eraman” itz oiekin lotuta dago.

Parraeragille giro ortako neurrietan sartzten da kanta au.

“Uso txuria” abestiaren doñuarekin abestutzen dute. Mezu gogor baten-tzat, doñu estitsua.

Abestien bilduma jasotzalleak ezagutzen zuten kanta au. Aita Donosti’ren bildumetan agertzen da jaso. Aita Modesto Lekunberri’k, Etxarri-Aranaz’en, 1920’garren urtean bildu zuen.

Erdal itzez josia agertzen da: “pagatu”, “deskalabratu”, “pasa”, “sentitzen”, “planta”, “munduan”.

Bertsolarien kutsua nabaritzen da. Izkuntzaren aldetik, errex jokutzen da; errikoa, soil soil.

Mezuaren laburpen bat emanen dugu: Aundikeria ta aundinaia salatzen ditu. Bai, denak eraman nai ta ezin. Bide orretik sortzen diren kalteak andie-giak izaki, ezin direnak ixildu. Gizonaren itxurak ainbeste galtzen du orrekin. “Denak euki nai orrek”, gizona lasaitu bearrean, ondo estutzen du.

## VI.– MAÑERU’N KARGATU

**“Mañeru’n kargatu naiz Etella’rako,  
atso bat an zegoen kalean pronto,  
eman dut topo ona dalako  
Cuanto vale una arroba?,  
bost eun lauko (perras chicas).**

**Mañeru’ko arakiña asko jakiña,  
laister ezagutu nuan ez dala piña,  
jai nere miña ondo egiña!  
bost lagunarentzat,  
ba det arroba bat viña.”**

## OARRAK (“MAÑERU’N KARGATU” KANTARI BURUZ)

Kanta onek bi lerro talde ditu ta lerro bakotxak bost errenka.  
Bertsolarien giroa arkitzen dugu. Euskara soil du.  
Parreragillea dugu kanta au.

Erri baten nortasuna azaltzen digu.

Sal-erosketarako zaletasuna aipatzen digu; “atso bat saltzen” dio.

Arakiña, bai trebea!, bainan usteona ezin sortu.

Mañeru, mats-ondoaren lurraldea bezala ezagutzen dute.

Noiznai gizasemeak ardo billa joateko toki berexia.

Kantu au, Aita Modesto Lekunberri'k 1920'garren urtean jaso zuen. Aita Donosti'ren bilduman argitaratua dago (1051 orrialdean, bigarren zenbakian). Naiz kanta berdiña izan, aldaketa txiki batzuek dauzka.

Nunbait MAÑERU izen orrek, Sakana'ko gizasemeentzat dena esaten du; ardozaleen toki berexia. Ardoa atsegiñaren ezaugarri izaki.

Kantak dionez, atsoa izaki karrikan ardoa saltzen.

Abesti onen abeslariak erriko gizonari buruz geiegi esaten du: arakiña ere ardoa saltzen dabil. Gañera oso ondo daki saltzen, naiz beti ez oso garbia izan. Arduarekin atsegiña lortu bearrean, saltzeko ume zitalak sartzen zirala-ko, minduta uzten zuten gogo onezko eroslea. Arduaren izen ona gauza bat zen, gizasemeen maltzurkeria bestea. Maltzurkeriaren miñak iraun du beti.

## VII.– TXERRIARENA

**“Benteruaren txerri tristeak  
Arraiz'un saldu ziran  
iru ez besteak  
ikaratzen zituzten Bizkai jendiak  
illea punta puntaraño zorriaz beteak  
benteruaren txerri traketsak  
mutur luze ipur zorrotzak  
etziran motzak aien biotzak  
amalautatik iru ordotsak  
benteruaren txerri beltzean iñek  
edanez zarrak eta pixue ariñak  
ai nere miñek, ondo egiñek  
lanik asko eman zidan  
saldu eziñik.”**

## OARRAK (“TXERRIARENA” KANTARI BURUZ)

Amalau lerroko kanta, izkin ezberdinñekoa, 8-10-12'koa.

Parreragilazko giroan egiña arkitzen dugu.

Benteruaren iru txerriak olakoak ziren agertzen digu. Arraiz'un lekukoak garbi ikusi zituzten bazterrak, batez ere Bizkai'ko semeak. Itxuraz txarrena zeukaten: zorriaz beteak. Alajaña itxura alaxekoa zeukaten: mutur luze, ipurdi zorrotz. Txerrien akatsak ez ziren orrekin bukatu: amalautik iru ortotsak, adiñez zarrak, pixue ariña. Orregatik malko ugari nagusiarentzat. Orrelako bal-

dintzetan saldu eziñik zebiltzan. Ez da arritzekoa: osasunez, gaizki, itxuraz makal. Ala guztiz ere nagusiak iruan bere ortan, saldu naian.

Orrekin zer esan nai digu? Arakiña gizagaxo bat zela ta aragia txarrenetako zeukala. Ori gizon madarikatua!

Kanta au ondo jaso dago Aita Donostia'ren bildumetan (Cancionero Vasco VI'garren zenbakia, 398 orrialdea, 1994).

Erabilitako euskara soila da; erriko izkuntza dugu.

Erdal kutsuzko itz asko sartzen ditu: "tristea", "jendiak", "punta", "edadez".

Bersolarien izkuntza nabari dugu emen.

"Bizkai'ko gizasemeak" aipatzen dire. Ez dituzte nolanaikoak bezala agertzen. Ala guztiz ere, orrelako txerri traketsak ikusita, arrituta gelditzen dire.

## VIII.- GALTZAK JARIO

**"Bersuketan asi dira  
bi galtza jario  
bat Astigarraga ta bestea Antonio  
gradueta altuetan  
nai lukete igo  
Aita guriarentzat ez dute balio."**

## OARRAK ("GALTZAK JARIO" KANTARI BURUZ)

Sei lerroko bertsoa dugu.

Jose Maiza'ren sendiaren oituretan dago esatea, kanta au, beren adiskide batek, Jose Antonio Mendiola'k abestu zula Etxarri-Aranaz'en 1923'garren urtean. Ori jakin genuen aspaldi bere garaian.

Parreragillea dugu abestia. Lotsagabekerietan bi bersolari agertzen direla esango genuke. Bakotsak bere aldetik galtza luzeak bear, gizonaren itxura izateko. Ala guztiz ere dena aitortu bear: aitaren galtzak, denen artean luzee-nak izaki.

Iñorrek ez du jaso, oraindik kanta au.

Euskara erriko giroan erabilia dago.

Bi bersolarien izenak aipatzen ditu: bat Astigarraga, bestea Antonio, biek gizonezkoak "galtza jario". Biek andizaleak: "gradueta altuetan nai lukete igo". Biek motzak gelditzen zaizkigula esaten zaigu: "Aitaguriarentzat ez dute balio".

Euskara, erriko bersolariarena da; errexa, errikoa, erdal itzez betea. Ikus, adibidez: "bersuetan", "gradueta", "altua".

Gizona izateak, izkuntzan aldetik, galtzekin zer ikusia ba du. Galtzen eredu onetan gordetzen den gaia, txikien aundinaia da. Begiekin dena jan nai eta ezin. Benetan arrigarria. Ori da txarrena. Elburu andirik lortu gabe, bide erdian gelditzen dire.

Arritzekoa ez dutela kanta au iñork jaso. Etxarri-Aranaz'en naiko ondo eza-gutzen dute.

## **IX.– NOBIOENA**

**“Itsasuan dijoaz amabi nobio  
sei mediku ta sei botikario  
zortzi anuario sei kintalakuak  
nork berak a pulso bizkarrez igo  
alakoari kontua nork egin al dio?”**

## **OARRAK (“NOBIOENA” KANTARI BURUZ)**

Nunbait kosta zaie sendagillei, baita ere botikarioei andregaia billatzen. Ba daramazkite zortzi anuario asmo eder ori aurrera eramateko.

Parreragille giroan sartu dezakegu kanta au.

Jasorik gabe dago kanta au bilduma ezagunetan.

Bost lerro dauzka bertso onek, eta lerro bakotxak amar edo amabi izkin.

Bersolarien giroan sortu direla nabaritzen zaie.

Izkuntza soila dabilkite, bersolarien oituretan bersolarien antzera, erdal itzez josia: ogeitalau itzetik, zazpi erdal sustraietatik datoz, ia irutik bat.

Asmo ta iduri bezala ba du kanta onek berexitasuna; gañera lau liburu mardul egitazko lana egiteko. Gero nunbaitetik sortu bear dirua. Urontzi polita ekarri zuen guregana. Gero nunbaitetik sortu bear dirua.

Ainbesteko kezketan ez aztu asmo argitsuak.

Nobio arrigarriak agertzen dizkigu, mediku ta botikario, liburu marduletan izenak agertzen dituztenak eta ori ez da dena, itsasoa baserritik urbiltzen du. Oraindik gizartean, gizonak gizonetik desberdintzen dire.

## **X.– LEKUNBERRI'KO ZERRI AZALARENIAN**

**“Meriendatu genuen  
txit modu onian  
janean eta eranean  
asko pasa gabe  
zazpina errial zala  
kontua azkenian  
andrea zerri azala  
eta gizona langosta  
emengo merienda au  
etzait gutxi kosta.”**

## OARRAK (“LEKUNBERRI’KO ZERRI AZALARENIAN” KANTARI BURUZ)

Kanta au ere parreragillea delako neurrietan sar dezakegu. Atsaldeko ogi-tarte du elekatzen. Diru sariaren neurri ona abesten du.

Nork sinis dezake berri ori?: zazpi errialaren merienda. Gizonaren dasta ta emakumearena ez da berdiña; andriak zerri azala nai, gizonak berriz langosta.

Kanta au ez dago iñun jasoa.

Bersolarien eskua ta giroa arkitzen dugu emen; baita gaia ere eta egiteko lanbidea, eta neurriak.

“Zerri azalarenian”, benta baten izena delakoan gaude. Kanta zar batena baño, benta baten kutsua dauka. Merienda baten inguruan josia dauka gaia. Merke egindako merienda da agian: ezin sinistekoa “zazpina errial”.

Ipuia ariña, amar lerroekin eta lerroak 6/8 izkiñekoekin. Jai ederrak gogoan dauzkate, euskaldunentzat itxaropenezko eguna; senar-emaztea merienda-txoa egiten.

Erriaren euskara du, erdal itzaz josia: “meriendatxoa”, “pasa”, “errial”, “kontra”, “langosta”, “kosta”.

## XI.– GURUTZE SANTU ORI

“Gurutze Santu ori bai misterioa  
orain kanta bear det kanta umana  
soñean daramala gurutze berdía  
ekatzu gurutze ori bai neure semea  
ez dizut bara emango Birjiña neurea  
nik emen pasau bear det eriotzea  
eriotzearekin pasio luzia  
iru belar larrosa eskuan dauzkala  
iru eskuan eta bai zazpi buruan  
nundik dituzu larrosa eder oiek  
Jesucristo ordutik ditugu oiek  
Jesucristo ori dago bai meza ematen  
San Pedro apostolua arei meza laguntzen  
Maria Santísima meza ura entzuten  
Maria Magdalena ura akonpañatzen  
amar mila aingeru koruan kantatzen  
beste ainbeste baziran musikari jotzen  
.....  
.....  
goian tenploan dago  
amandre Santa Ana  
Uai kanti au akabatzerá  
jendia barkatu  
obeki dakienak aurrera segitu.”

## OARRAK (“GURUTZE SANTU ORI” KANTARI BURUZ)

Kanta elizgirokoa dugu, kristauikasbiderako inguruan sortua. Mixioetako kanta bat izan leike oso ondo; zati ezberdiñekin josia dagola esango genuke. Gai batekin asten da eta beste gai batekin amaitzen. “Gurutze Santuarekin” asten da, gero mezarekin jarraitzen, santuekin amaitzen. Gai batetik bestera errexegi dijoa. Esaldiaren aldetik, elkarrizketa erabiltzen du. Lerro batean ala dio: “Soñean daramala gurutze berdian...” ta urrengoan ala dio, “ekatzu gurutze ori neure semea...”.

Gurutze ori aitortzen du bizitza ulertzeko giltza bezala.

“Iru belar larrosa eskuan”, esaldi orrek Jainkoarekiko indarrak gogoratzen dizkigu: sinismena, itxaropena ta maitasuna.

“Bai zazpi buruan”: Jesus’en zazpi zauriak ezaguterazten dire. Jesus’en nekaldia mezan bizitzen da.

Jesus meza ematen agertzen zaigu, bere adiskideak ondoan dauzkala: San Pedro laguntzen, Maria meza entzuten, Maria Magdalena akonpañatzen, amar mila aingeru abesten.

Lekuko santuak erantsi ditezke nai aña. Santa Anaren astia dator. Or gelditzen da gure kanta. Aurrera jarraitzeko bidea irikia gelditzen da, itz auekin: “obeki dakinak jarrai...”.

Erriko euskaraz egiña dago kanta au: “Kanta umanue”. Orrekin dena esana dago eta aragiaren auleria gogoan dauka.

Emen asten dan bezala, kanta au ez dute iñun jaso. Santa Ana’ren zatia berriz Aita Modesto Lekunberri’k bildua dago; Zizurkil’en 1921’garren urtean (Aita Donosti’ren bilduma, 735 orrialdea, II’garren zatian).

Kanta zar onen esaleak amazapia lerro zekizkin, gero utsune bat zeukan eta Santa Ana’ren lerroa eransten zion. Lerro bakotzak amabi laukikoak dire.

## XII.– SAN JOSE’RI

**“San Jose’ri dibertsio polit bat  
buruan det pasa  
iruritzen zatela  
txit ondoren gauza  
bersoi paratzea  
egin det ametsa  
San Jose’ren bizitza  
kanta ba al neza  
Gure Aita San Jose  
zerua joan baiño len  
agoz pobre triste bat bizitu zan emen  
debozio aundiko Aita Eternoaren  
Birjinaren esponja eskojitu zuen  
bizitza iartarako  
zazpi dolore ta gozo**

**munduaren kontuaz ari didazazo  
Ispiritu Jaunaren milagro ta obrada  
Jainkoaren Semea jaio bear dala.”**

## **OARRAK (“SAN JOSE’REN” KANTARI BURUZ)**

Bersolarien kutxu aundiko kanta zarra dugu.

Eliz giroko kanta baten aurrean gaude: San Jose’ri buruz egiña ain zuzen. San Jose’ren bizitzaren xeetasunik ez digu ematen, bakarrik gertakizun eza-gunak oroitarazten; Birjiñarekin ezkondu zala esaten digu. Gutxikin naiko lasai gelditzen da. Gaia aizatua bainan intxaurrak utsak.

Kanta au izen aundiko gizon batek jaso du, Aita Zabala’k ain zuzen (Dorronsoro ta Xenpelarren bersoak, zenb. I, 207 or., Ereñozu’n-Hernani’n 1995’garren urtean bildua ta Xenpelar’ek esana 1938’garren urtean).

Ogei lerro dauzka kanta onek ta lerro bakotxak zazpi izkin. Orrekin esaten zaigu lerro motzak direla.

Erri xearen euskara dabilkite, erdal itzez ondo kutxatua: “dibersio”, “pasa”, “bersoi paratzea”, “pobre triste”, “debozio”, “Eternoaren”, “dolore ta gozo”, “milagro ta obradaz”. Orrela izkuntza errex bidetik dijoa, baita ere ondatua gelditzen.

## **XIII.– FRANZESAREN IDEA**

**“Frantzesaren idea dena aldrebes  
atzo lau ba zituzten biak baterez  
franzasak langillek dirala ustez  
pikotxoien asita lurrera auspez  
gero berriz zutik jarri pipa bana sutuz arri  
egunean ezin autsi katillua ta arri  
oien debozioaren moruaren kisa  
beñere ez dira sartzen ankaz eliza  
dirurik ez mozkortzeko, gogorik ez elizarako  
bildur dira erori eta azpian arrapatzeko.”**

## **OARRAK (“FRANZESAREN IDEA” KANTARI BURUZ)**

Franzasaren nortasuna aztertzen du kanta onek. Erriaren ustea azaltzen zaigu: asmoak ankaz gora jartzen ditu. Zekenak dirurik ez mozkortzeko, gogorik ez elizarako.

Kanta au parreragillezkoa da: “beldur dira, erorita azpian arrapatzea”.

Idazki au berso paperak dauden bezala “erdal itzez josirik dago”. Ara eredu: “Idea, aldreves”. Ereduak jarraitzen du: “debozioa, bere kisa”.

Kanta au jaso dago dagoeneko: “Xenpelarren berriak” (Dorronsoro IV zenbakia, 2183 orrialdea).

Nik bildutako garai artan, Zelestinok abesen zuen.

Bertsolarien eskue dauka kanta onek, aita antza andia. Xenpelar ez dago urruti. Franzesei ziria ondo sartzen die: gauza bat esan eta bestea egin. Beraien aurka gauza gogor xamarrek esaten ditu: moruen mallan jartzen ditu, eleiz gaitan berriz otzak direla aitortzen. Orrekin dena esana dago Erria lasaitzeko gure bersolariak urrezko gaia dabilki.

Parregarria arkitzen du bersolariak arriakin pipa pixteko era. Orrekin aitortzen du beste errietatik asko ezberdintzen dela frantsesa. Amar lerro dauzka berso onek eta lerroak neurritz ezberdintzen dire; luzeenak amasei lauketa-koak dire, laburrenak berriz zortzikoak.

Kanta onek erriaren jakintza agertzen digu, baita ere eztena.

#### **XIV.– “ALEMANAK ETA FRANZESAN GERRA”**

**“Alemanak eta frantsesan gerra  
aideplanoak aidetik eta  
submarinoak uspian  
ixtilluk txarrak paratu zituen  
oien bien erdien  
dudarik gabe ibilli gara gerrari txarren antzian  
beti zebillen igeskari  
eta terrenoan ere utziaz  
oai frantzes gaizoak larri ziran  
atzenereko Frantzian  
uain urte ainbat aleman  
ez da Frantziko lurrean”.**

#### **OARRAK (“ALEMANAK ETA FRANZESAN GERRA” KANTARI BURUZ)**

Ez dituzte iñun jaso berso abek.

Bersolarien giroa agertzen digute.

Asmoak zabalak dire, xeetasunik gabeoak.

Frantsesa ez da begi onez agetzen: beti iges egiten du.

Gauzak aldatu direla diote: “uain ainbat aleman ez dago Frantzia'n”

Itzak laburtuak ikusten ditugu, erriak egiten duen bezala:

“uspian” (urazpian)

“oai” (orain)

Erdal itzak geiegitxo agertzen dire:

“aideplanoak”

“submarinoak”

“terrenoan”.



1914-1918 tarteko gizaldi onen lenengo gudari buruz da mintzo berso au. Guda ontako tresna berriak aipatzen ditu. Arrituta utzi zituenak orduko giza-semeak: aideplanoak eta submarinoak.

Aspaldiko garai aietan zer esaten zan frantzesari buruz ba dakigu: “beti beldurrez” eta “terrenoa usten”.

Bersoa amaitzerakoan, frantsesa zertxo bait obeto dijoala esaten zaigu.

Amabi lerro ditu berso onek, zazpi lauzkikoak geienak, beste batzuek luzeagoak dire.

Nolako oiartzuna euki zuen ludi zabaleko lenengo guda onek jakiteko, berso au lekuko ta berri emalle da.

## **XV.– OTSOAK ASTOA NAI ZUEN**

(Otsoak astoari segitu ta bordan sartu ta atzekaldiakin atea itxi ez sartze-ko). Orduan otsoak ataditik:

### **OTSOAK**

**“Asto zarra mukizu  
tranparik asko dakizu  
nik urrena arrapatzen zaituzten lekuan  
mezarik entzungo ez dezu”.**

### **ASTOAK**

**“Otso zarra grazia  
sobra ta gaizki ezie  
biar jango ba naukek  
ba diat gaurko bizia.”**

## **OARRAK (“OTSOAK ASTOA NAI ZUEN” KANTARI BURUZ)**

Elkarrizketan ditugu otsoa ta astoa, bi nortasun ezberdiñekin, aurrez aurre begira daudela.

Astoa jakintsu bat bezala agertzen zaigu. Asko dakila, dio. Mutur beltz agertzen da. Bear den tokian egoten daki. Mezarik ba’litz jakingo luke an egoten. Otsoari eman dion erantzunean, zuertasuna nabari. Bizirik den bitartean, ori ondo egiten daki. Jokabideak mintzo astoaren alde.

Otsoa berriz maltzurra bezala agertzen digute, baita ortz zorrotzduna eta basatia: gaiztakeria besterik ez du.

Bi nortasunen azterketa egiten zaigu. Elburu bakarra berriz parra eragitea. Ez da iñun jasoa arkitzen kanta au.

Aurrak eta erri xea lasaitzeko egiña dago.

Lau lerroko berso bikotea dugu. Lerroak berriz zazpi laukokoak dire.

Euskara bertakoa, errikoia du.

## XVI - SUGANDILLA KUSKUR

**“Aita ta ama nun tun?  
Errotapian.  
Zertan?  
Txotxa biltzen.  
Txotxa, zertako?  
Sua egiteko.  
Sua zertako?  
Amiñe xarra beotzeko.  
Amiñe xarra zetako?  
Olloei jaten emateko.  
Olloak zetako?  
Arroltzak egiteko.  
Arroltzak zetako?  
Apezai emateko.  
Apeza zetako?  
Meza emateko?  
Meza zetako?  
Guk eta mundu guzia salbatzeko.”**

### OARRAK (“SUGANDILLA KUSKUR” KANTARI BURUZ)

Jokabide ezberdiñak, elkarrekin zer ikusia daukatenak, lotuak gelditzen dire ur tantoen edo ur-jauzien antzera. Errenka luzea dago egiña: gurasoek, txotxak, sua, olloa, arroltzak, apeza, meza, mundua salbatzeko.

Kanta onen elburua, kristau-ikasbidea egiteko asmoa agertzen digu. Asieran, gurasoak errotapean ikusten ditu eta meza ematen amaitzen da. Asmo garbia dabilkitez naiz zalla izan.

Bertako euskara egiten dutela ezin ukatu. Etxarri-Aranazkoa ain zuzen: “amiñe xarra”, “zetako?”, “tun (aditza) eta abar.

Kanta au ez dago iñun jaso. Errian, udaran oraindik abesten dutela diote.

Ziur asko abesteko baño geiago da aurrak jolasteko: errenka luzean txos batzuek jarriko zituzten. Batetik bestera, anka baten gañian jauzika ibilliko ziran. Galdera egiterakoan jauzi garaia etorriko zen. Txostenik ez zuenak ikuitzen irabazle. Orduak etorri eta orduak joan, abestuz eta jauziz ibilliko ziren.

Zergatik izena ain bestelakoa? Kanta au luzatu edo moztu diteke, naia gertatzen den bezala, sugandillaren buztana kuzkurtzen den bezala.

Jolas onen elburua, aurrak abestuz eta jauziz ezitzea da.

Vinson'en kanta baten antza dauka bukaeran, ez asieran (“Le Folklore du Pays Basque”, Maisonneuve, Paris 1883, 214 or. –Kukurruku zer diozu–.)

## **KANTA LABURRAK**

Kanta luzeen ondotik, kanta laburrak datoz.  
Jaso genituen bezala agertuko ditugu.  
Geienetan, lau lerrokoak dire.

### **XVII.– “ALKARRI TAPUE BOTATZEN”**

**“Alkarri tapue botatzen  
aita bersolaria omen.”**

### **OARRAK (“ALKARRI TAPUE BOTATZEN” KANTARI BURUZ)**

Itz-neurtutako esaldi motza benetan: bi lerro bakarrik.

Bersolarien lana agertzen digu: denak aitzaki onak zirikatzen ibiltzeko. “Zirikatzea”, ziriakin ibiltzea esan nai du. Mingañarekin erabillitako borroka polita dela esango genuke; ara emen eredu txikienetakoa.

Bersu au ez dugu iñun billatu jasorik oraindik.

Lenengo lerroan dago bersoaren giltza. Etxeko euskara ortan, “Alkarri tapue botatzen” (–tapue– itz orrek, elkar ziria sartzen ibiltzeari deitzen diote, or). Aurrak beti elkar zirikatzen, aita bersolaria izaki, baita inguruan ori bera egiten ondo jakin.

Berso bat daukagu or, esaldi jatorra biurtua. Bersoetan asi eta esaldi boro-billa sortu.

### **XVIII.– ARDIA ZEZIN**

**Artzai bateri beste batek esan zion:  
“Ardia, zezin al da zezin?”  
“Bai, zeziña, ardi zarra bizi eziña.  
Bai, olako franko izango ziñuzke  
zuk ere artzai ba ziña”.**

### **OARRAK (“ARDIA ZEZIN” KANTARI BURUZ)**

“Zeziña” aragi gatzatuari deitzen zaio. Aragi gatzatua aragi legorra izaten da; ardi zarra ba da oraindik geiago.

Zeziña berez, gizaseme beartsuen janaria zen.

Bi artzairen arteko elkarizketan, artzaiaren bizia txiroa dela ta beartsuarena, benetan gogorra, aragi zeziñarena bezalakoa, diote.

Ez dauka doñu berezirik, itz neurtuaren atsaldia baizik. Esaldi au ez da iñun agertzen jasorik.

Zeziña elkarrizketan dabilkitela, artzaiaren lanbide txiroa aitortzen dute: lana benetan gogorra, okela merkiena jateko. Zeziña izenak ori dena du esaten.

Zeziña itza bizpairu aldiz errepikatzen du, garbi ta argi jakiteko, denak ontzaz ematen dutela ta iñorrek ez dula zalantzan jartzen. Bai, artzaien bizitza latza agertzen digu bertso onek.

Lau lerro ditu, zortzi ta amabi izkiñokoekin.

Euskara errikoa dabilki; garbia.

## **XIX.– AI AI AI MUTILLA**

**“EUSKAL ERRI MAITEA, AZKAR ESNA ADI!  
ESKER ONA EMATEKO GURE EUSKERARI  
AI, AI, AI MUTILLAK, GURE EUSKERARI!**

**EUSKAL ERRI MAITEA, ARREN JEIKI ADI!  
EUSKERA ITZULTZEKO IRE SEMEARI!  
AI, AI, AI MUTILLAK, IRE SEMEARI!”**

## **OARRAK (“AI, AI, AI MUTILLAK” KANTARI BURUZ)**

Lenengo aldiz ETXARRI-ARANAZ'EN nintzala kanta onen berriak aozko literaturan jaso nituen. Bi estrofa bakarrik bildu nituen aozko literaturan. Nere azkeneko ibillaldian kantu oneri buruz berri geiago jaso ditut eta den denak moldiztegian egiñak. Orregatik emengo atseskian, lasai ta luze aztertzen dut gure erriko abesti au. Geroxeago ematen ditut berriak naiko ondo eratuak.

## **XX.– EUSKAL JOTA**

### **OARRAK (“EUSKAL JOTA”RI BURUZ)**

Jotak daukan indarrarekin Napparroa'n ikusita, gaiñera uztagaraian gizonak gariak ebakitzea joaten direla, jotak dun doñuarekin kutsatzea bidezkoa deritzagu.

Gaur Jainkoari eskerrak, euskal jotak maiz entzuten dire. Len euskal jotak zeudenikan ez genekin. Maiza'ren eredia oso interesgarria da.

Oraingo eredu onetan zerbait txarra daukala aitortzen du, baita ere leku-koa ekartzen. Mutilla ez da motela asmatzen.

Beste nunbaitetik artuta jota au jaso dago; Maria Milagros Zugadi'k 1930'garren urtean (J. Larrinaga, Fiestas y Niños en Vizkaia, 1994).

.....

Oso atsegin zitzaion, baita ere, erdaraz ikasitako jota: ljiuak aipatzerakoan parra eragiñaz. Erderaz ba zekien beste au:

**“Dos vinticientos gitanos  
han salido de Aragon  
con tijeras en la misma  
a esquilar un caracol”.**

Jotak berotasuna dauka, odola irakiten jarrita egiña dela dirudi. Ardoak indarra ematen die. Jotak abesteko giroa sortzen du. Sabeleko indarrak agorttu arte egin bear. Orduak joan eta orduak etorri ez dira aspertzen. Gañera lagunartea bear, jaia ta illunabarra ba da obe.

Gazteak, jotak berotzen ditu, baita barrena betetzen ere. Gazteen artean jotak erderari iriki dio bide mardula. Orregatik “Jota” euskalduntzea bearrezkoa deritzaigu.

## **XXI.– JESUS MAITEA AIZKORRI’N DAGO**

**“Jesus Maitea Aizkorri’n dago  
bere amatxo Urbia’n,  
batzuek zabaldua  
eskua ta poltsa.”**

## **OARRAK (“JESUS MAITEA AIZKORRI’N DAGO” KANTARI BURUZ)**

Azkeneko kanta labur onek gaia elizkoia dabilki. Aitzgorri ta Urbia’ko elizatxoak aipatzen ditu; erriaren diru ta laguntzarekin egin direla aztu gabe. Ez ditu doai jaso, orregatik ba ditu eskubideak ere: orixe bera esan nai dula kanta onek, deritzaigu.

Ez da kanta au iñun jasorik arkitzen.

Lau lerroko kanta onek, bersolarien giroa aitortzen du. Orregatik esaten zaigu asieran: “Arantzazu’n aiton bat egin zaigu bersolari”.

Aizkorri ta Urbia’ko elizatzakoak aipatuak izaki erriari esker. Nunbait, askoren laguntzarekin egiñak daude. “Eskua ta pobre”, bi itz oiek, laguntza nola eskeñi den agertzen digute: auzolana ta diruaren bitartez.

Bertsu onen mamia aberatsa da. Elizatzakoak, erriak egin ditulako, mintzo da. Bere orretan aipatuz, zaintzen dute santutegia.

## ATSESKIA

### SENDIAREN ARDURA

Ameriketatik itzulita, ogeitabortz urte aurretik bildutako kantak asi nintzen ikertzen. Berealaxe ikusi nuen, kanta zar oien doñuak bildu gabe zeudela ta lenbaitlen biltzen astea, erabaki nuen.

Jose Maiza'ren sendiarekin arremanetan asi nintzen eta eskatu nien doñu zarrak biltzen astea. Bazterrak ondo ikusten asi ziren eta or, nun arkitzen duten "Artxulo"n, kantu zarren paperak aspaldikoak. Ez ziren gaurkoak, antziña garaikoak baizik, irarkolako izkien idatziak geientsuak, besteak berriz eskuz egiñak, denak zarrak. Len buruz zekizkiten kantak, orain moldiztegian argitaratuak batzuek; luzeagoak eta garbiagoak. Aldaketa ederra.

Bost aizpe amar egunez bildu dire (Margarita, Maritxu, Pilar, Puri, M<sup>a</sup> Remedios), bostatik arratseko zortziak arte, aldiro iru ordu. "Mandreseneko" etxean biltzen ziren.

Lan eder ori egiten ari zirela, etxean erabilitako kanta zar geiago arkitu dituzte, batzuek moldiztegiako izkiekin, bestiak eskuz egiñak.

Zorrotz ibilli gera ikusten paper zar oien berriak beste nunbait bilduak ote dauden, batez ere "Euskalerriko Eresi egoitzan", Errenderin, baita bersolarien egoitzan, 31 de Agosto karrikan, bertanbera beste liburutegietan.

Arkitu ditugu batzuek jasoak direnak. Baita ere arkitu ditugu beste batzuek itz egiagokin. Esan bearra dugu ere, beste batzuek, bein ere bildu gabeak.

Gure lanaren atseski onetan ondo jasotako berriak ematen ditugu, batez ere argitasuna, gure lanarengarrantzia ikusi dezaten. Mami aberatsa arkitu dugu. Orain aberastasun ori agertu bearra ta orrekin gure kultura irabazle.

### JASOAK DAUDEN KANTAK

Lendabizi agertuko ditugu, bigarren bilduma onen kantak sartuak daude-nak euskal abestien bildumetan dagoneko.

## 1) “ARANTZAZUKO AMAREN BERSOAK”

**“ERRODRIGOTXO** JOAN ZANEAN  
ARDIENGANA MENDIRA  
ANTXEN ZEGOAN BIRGIÑA ARANTZAN  
ARTZAITXOARI BEGIRA

**ERRODRIGOTXO** BALTZATERICO  
ERMITAXOA EIDAZU  
ERMITATXOA EIDAZU ETA  
NEREA IZANGO ZERA ZU

**IRU** LATA TA ZAZPI TELLATXO  
ASTEKO ASCO DITUZU  
ELIZA AUNDITZEN DANEAN BIAR  
AUNDIAGOA BEARCODU

**ERRODRIGOTXO** LASTER JOANZAN  
OÑATIAKO KALERA  
ELIZ GIZONAI BERTAKO DANAI  
BERRIONA EMATEA

**OÑATIARRAK** LASTER JOANZIRAN  
PROCESIOAN MENDIRA  
ANTXEN ZEGOAN BIRGIÑA ARANTZAN  
SEMIBERRIARI BEGIRA

**NERE** EUSKAL SEME  
ONDANOK EMEN  
IZANGODUTE OSTATU  
IZANGODUTE OSTATU ETA  
EUSKAL MEZA NON OPALDU”

## OARRAK (“ARANTZAZUKO AMAREN BERSOAK” DELAKO KANTARI BURUZ)

Nere lenengo bilduman ez nuen bildu kanta au. Aurten “Artxulo”-ko sendiaren billeretan agertzen da.

Dorronsoro’ren bilduman dago jaso (Dorronsoro, Bersoak, III’garren zatian, 1148 orrialdean). Salvatore Mitxelena’ren bersoak dire.

Sei estrofa dauzka kantu onek. Mariak artzaiari, Errodrigotxori egindako agurtza aipatzen digu. Ara itz gutxitan laburpena: artzaia ardietara, Mariaren agurtza, elizatxoia altxatzeko eskatzen dio, Maria’ren sendi zabala antxen agertzen delako.

Estrofa bakoitzean lau lerro ditugu.

Euskerak erriko kutsua dauka eta sendiaren kutsua.

## 2) "MARIA SANTISIMARI-ASIEREKO KANTAK"

### MARIA SANTISIMARI ASIERACO CANTAC

<b>ESTRIVILLOA</b>	<b>6</b>	<b>4</b>
Goacen goacen gucioc Virgiña Amagana Escaintzen diozcagula Mayatzeco lorac	Zure escuetan bada Confiatzen guera gu Zure laguntzan degu Zerua seguru  <i>Goacen etc.</i>	Pare gabeco Lora Usai gozocoa, Frututzat cenduena Eman Jaungoicoa, Izan zaite hugatic Beti jarraitua, Eta ez beñere utcia Desamparatua.
<b>1</b>	<b>VERSOAC</b>	<b>5</b>
Emenchen gaude gu Doncella garbia, Zu ederra adoratzen Guciz auspeztuac.	<b>AMA SANTISIMARI JARRI DIOZCANAC</b>	
<i>Goacen etc.</i>	<b>1</b>	<b>Gabaren illuntasun Beltctic irteniz Eta eguzqui ederren Arquian sarturic, Jarraituco dizugu Alegriz beteric, Ez galtceco aurrera Ceruco bideric.</b>
<b>2</b>	Santísima Maria Jaungoicoaren Ama, Virgiña guztietan Ederrena cerana, Mayatzeco loreequin Gatoz gu zugana, Cantatzen alabanzac Ta esqueintzen diotz dana.	<b>6</b>
<i>Goacen etc.</i>	<b>2</b>	<b>Egun sentico izar Tistiatzallea, Bidean dabillenen Consuelo andia, Lagun gaitzatzu eguiten Emen bidaldia, Irichi arteraño Jaun gure Jabea.</b>
<b>3</b>	Azucena Larrosa Eta Claveliña, Apaindu ezazute Loreen Erreguiña. Artu dezagun danoc Balsamo usai fiña, Ceruetaco jardin Gozoan eguiña.	<b>7</b>
Erregutzen dizugu Guri oen trunquez, Ceruco lora ederrac Ematea laster.	<b>3</b>	<b>Ama maitagarria, Ona familia, Arren aditu zazu Gure onguillia, Barrendic eguindaco Gaurco escaria, Logratuaz danontzat Ceruco gloria: Ala gertadedilla.</b>
<i>Goacen etc.</i>	<b>4</b>	
Gure biotza dago Lora humill oetan, Guc doayac bearditugu Zu aberatsa cera,	<b>3</b>	
<i>Guacen etc.</i>	Nola uda berrian Erleac campoan, Negu beltza pasa ta Sartzean frutoan, Loracic gozoenac Billatzen dituan Maria Mayatzean Ala guc Temploan.	
<b>5</b>		
Ez arren gure Ama Juan zu chit urruti, Zuc alde eguin ezquero Ez da salvacioric.		
<i>Goacen etc.</i>		



## MARIA SANTISIMA AZQUENERACO CANTAC

<b>ESTRIVILLOA</b>	<b>3</b>	<b>6</b>
<i>Mayatceco loraquin Ama chit maitea Arzazu gure biotza Gure obra on humillac.</i>	<b>Mutil zucena dago Mariaren biotcean Nola lirio churia Urrezcon ontcian.</b>	<b>Eleizaco ministro Cristoc biralduac Onen biotza dezute Ta bere Amarena.</b>
<b>1</b>	<i>Mayatzeco etc.</i>	<i>Mayatzeco etc.</i>
<b>Larrosa ederra da ta Baita claveliña. Mariac maite ditu Gaindic virtuteac.</b>	<b>4</b>	<b>7</b>
<i>Mayatzeco etc.</i>	<b>Emacume ezconduac Leyal ta garbiac Etzaduzca azturic Maria Santisimac.</b>	<b>Goacen bada gucioc Agur eguitera Virtutez apainduric Virgiña Amagana.</b>
<b>2</b>	<i>Mayatzeco etc.</i>	<i>Mayatzeco etc.</i>
<b>Larrosa bat dirudi Doncella garbiac Izango du maitea Virgiña Mariac.</b>	<b>5</b>	
<i>Mayatzeco etc.</i>	<b>Familiaco guraso Contu onecoac Zuei beguira dago Ceruco Erreguiña.</b>	
	<i>Mayatzeco etc.</i>	

## **OARRAK (“MARIA SANTISIMARI-ASIERAKO KANTAK” DELAKOARI BURUZ)**

“Artxulo’ko kanta au, amabost orrialdeko liburuxa batean dago. Asiereko kantak datozte lendabizi, gero bersoak, ondotik azkeneko kantak. Madrid’en argitaratua dago, eguna ta urtea agertzen ez dutela. Antigua imprenta unibersal delakoan egiña dela esaten du. “Cabestreras” da etxearen izena.

Dorronsoro’k bildu zuen, baita argitaratu ere (Dorronsoro, I zenbakia, 209’garren orrialdea). Dorronsoro’k estribillo bakarra dakar eta orren erantzuna.

Zazpi estribilloaqk osorik daude liburuxka onetan. Aintziñako kanta onetan osorik sei estribillo daude, bakoitxak lau lerro ditu eta erantzunak lau lerro daukate baita ere. Maiatzeko lorak erabiltzen ditu bere gai berexia bezala: biotzaren eskeintza betiko gloriaren orde.

Beste aldetik sei-zazpi izkiñeko lerroak dauzkagu ageri, liburu orretan.

Euskara berriz, errikoa dugu, erdal itzez josia, adibidez: “Doncella, adoratzen, amarez, humil, salvacion, confiatzen, seguru, balsamo, frututzat, temploan, desanparatua, alegria, logratuaz, virtutea, familiko eta abar”.

Kanta au, orduak aurrera dijoztela gero ta ederragoa deritzaigu.

## **“ETXARRI-ARANAZKO” KANTUAK DELAKO ORRIALDEA**

Izen onekin, “Artxulo”n bertso paper bat daukate oso zarra. Lau kanta ezkerdiñak dauzka: “Askotxo”, “Benteruaren Txerriaz”, “Mañeru’n”, “Bertsuketan ari dia”.

### **3.– “ASKOTXO EDAN BA’NUEN”**

Orain dela ogeita bortz urte kanta au aoz egiña entzun nuen. Oraingo au argitaratua moldiztegiko izkiekin arkitu dugu. Bata bestearekin aldaketa txiki batzuek daude. Alde batetik aoz egiten diren akatsak, bestetik idazleak egiten ditun zuzenketak edo usteonak. Guk biek ontzaz artuko ditugu.

An asten da: “Askotxo eraman nuen”. Emen, “Askotxo edan ba nuen”...

Aita Donosti’rein bilduman jaso dago (III’garren zenbakia, 1413 orrialdean). Doñuak ere jaso zituzten (1920’garren urtean, Aita Modesto Lekunberri’k).





## IRUÑAKO BERTSO PAPERA

Bertso paper au dugu, Artxulo baserrian zegoena moldiztegiko izkiekin egiña. Elizako kantak daude barrenean eta berri bat bakarrik dator idatzita: “IRUÑAN-NEKEZKO AMA BIRJINAREN IRAKORLAN”.

Bi kantu abek ez daude argitaratuak iñungo bildumetan. Ulertu eziña baiñan egia.

### 6.– “AITA TXIT MAITE”

Eliz giroko kantua dugu. Batez ere dena orritxo batean egiña.

Lau estrofa ditu, lau lerrokoak eta lerro bakoak lau izkiñekoak.

Kanta au San Franzisko’ri eskeñia dago. San Franzisko agertzen zaigu eredu kristauak bezala jarraitzeko: beartsuak bezala bizi, gurutzea artu. Jesus’en emaitza berriz zauriak, bost gorputzean.

Maitasunekin indarturik gallendu ditzagun zauriak.

Artxulo’n, bertan erabiltzen zuten kantu ori.

Ikusten danez, Bersolarien eskua garbi ageri da.

### AITA CHIT MAITE

“Aita chit maite Frantzisko Santua  
Amoriozko Serafin gartsua  
Birtuteetan izan zaitez beti  
Gure maisua.

Bizi izan ziñan beartsu munduan  
Pobreza beti maite izan zenduan  
Aberats zera sekula guztiko  
Orain zeruan.

Jesus daukazu beti biotzean  
Nai zenduke egon aren gurutzean  
Bost zauri eder ezarri dizkitzu  
Arrek gorputzean

Gloria beti Aita Jainkoari  
Orobat beti Seme gizonari  
Eta Espiritu ayek bietatik  
Datorrenari”.

## 7.- “BENETAN KRISTORENA”

Kanta au orritxo onetan bakarrik aurkitu dugu argitaratua. Euskal abes-  
tien bildumetan ez dute oraindik jaso.

Bost estrofa dauzka eta estrofa bakoitxak lau lerro. Iru lerro amar izki-  
ñekoak dire ta laugarrena bederatzikoa.

Elizako kanta da. Ara mezuaren ardatza: kristauak Kristo aitortu bea-  
rra, gure irabazia delako, orregatik aurrera begiratu bear da ta etsaiari uko  
egin, gurutzea beti elburua. Auek dire asmo aberatsak, indar aundikoak.

Euskara berriz errikoa, oso egokia du. Teologia ta izkuntza ondo ika-  
siak zeuzkan idazleak.

### **BENETAN KRISTORENA**

“Benetan Kristorena naizela  
Lotsa ta bildurrikan gabe  
Frantziskoren semeak bezela  
Jesus ziñez aitor nezake.

Mundu onen argi Jesus da-ta  
Aren estandarte segü,  
Eutsi eztanda egiñ artean  
Irten gaitezen garailari

Etzaigu faltako indarrikan  
Fedea falta ezipazaigu;  
Satanas marruka utzirikan  
Aurrera ta aurrera jarraitu.

Gurutze pian ibilli beti  
Onen itzalikan ez utzi;  
Onekintxe joan, oni segi  
Onekintxe ill eta bizi.

Aita Santuba deyezka dago  
Elizaren negarrak entzun;  
Etorri laster ta lasterrago  
Zenbat geran ikus dezagun”.

### **ETXARRI ERRIKO KANTA, BILDUMETAN ARGITARATU GABEA**

Etxarri’ko bertso papera orretan, kanta bat arkitzen dugu, beste iru  
kantuekin batean. Beste iru oiek bildumetan jasoak daude, beste lauga-  
rren au ez da arkitzen beste iñun argitaratua.

## 8.- “BERTSUKETAN ARI DIRA”

Idazki onen lenengo itzak, dioten bezela “bertso” itza aipatzen dute. Bertsolarien lana aitortzen du. Joskera ere giro orretan egiña dago. Bi estrofa dauzka zortziko izkien lerroekin.

Parra eragillearen giroa sortzen alegintzen da. Lenengo bi bersoak naikoa esaten dute: “Itxasoan ari dire arbolak aldatzen”, baita ere “anka motzan... bidean korritzen”. Orrekin nolako gizamalla dagon, agertzen digute: eziñezkoa era bat gallendua.

Paperan idatzitako kanta au, atseski onen aurretik, bilduma aundian, nolabait sartua dago, naiz or aozko literaturatik bakarrik artua izaki: “Anka Motza” izeneko kantaz mintzatzen ari gera. An estrofa batean lau lerro bakarrik dauzka.

Emen atseskian, asmo ta irudi berdiñak daude idatzita: “itsasuan arbolak aldatzen”. “anka motzekin korritzen”, “itsuak ikusten etxea erretzen”, “mutua jendiari deitzen”... Aozko literaturatik bilduak dauden esaerak motzagoak dire, idazkiekin jasoak berriz luzeagoak. Beste aldetik, asmoak berdiñak dituzte.

Esan nai duguna auxe da: “eziñezkoa bearrezko gauza ba’litz bezala biurtu leike”. Euskara kanta auetan belarri ondoan dago. Bi gizasemeak, Astigarraga ta Antonio’k burua goratu naiko lukete, bañan eziñezko lanetan dabiliz...

Emengo euskara errikoia ta garbia da.

“Bertsuketan ari dia  
bi galtza jario  
bata Astigara ta  
bestia Antonio  
graduetan altuen  
nai lukete iyo  
Aita gurearentzat  
eztute balio.

Itxasuan ari dira  
arbolak aldatzen  
anka motzak bazekik  
bidian koritzen,  
itxuak ikusi du  
etxia eretzen,  
mutua deada rez  
jendiari deitzen”

## 9.– “EUSKALERRI MAITEA” AI AI AI

Ementxen sartu bearra “Etxarri-Aranaz’ko” orritxuak arkitzen dugun kanta au, oso luzea benetan. Orritxu orren atzeko aldia betetzen du osorik. Argitaratu zuten bezala agertzen dugu emen.

Aipatutako euskal kantu ori bilduma ederretan ez dago jaso. Nola doña “txapel gorrien” kantan berdiña dan eta ori nola ordurako ondo jaso zeukaten, emen agertzen dugun kantu oni ez zioten batera garrantzirik ematen.

Guk osorik jasoko dugu ementxen, baita agertuko daukan garrantzia euskal kulturarentzat:

“Euskal efi maitea, azkar esna adi!  
Esker on emateko gure euskerari!  
Ai, ai, ai, mutiñak, gure euskerari!

Nork lezake euskera sekulan gaitzetsi?  
Beñere euskaldunak euskera ez utzi!  
Ai, ai, ai, mutiñak euskera ez utzi!

—————  
Euskaleri maitea, a’ren jeiki adi!  
Euskera itzultzeko ire semeari!  
Ai, ai, ai, mutiñak, ire semeari!

—————  
Euskeraren etsaia, euskaldun etsai da!  
Gure etsaiez e’ria betetzen ari da!  
Ai, ai, ai, mutiñak, betetzen ari da!

—————  
Gure euskaleria, nork etzaitu maite?  
Guzien biotzean beraz bizi zaitte!  
Ai, ai, ai, mutiñak, beraz bizi zaitte!

—————  
Etsaiak esaten du: euskera ostikatu!  
Zure etsaien esanik ez gero siñistu!  
Ai, ai, ai, mutiñak, ez gero siñistu!

—————  
Euskaldun aur gaztea, azkar andi adi!  
Euskera maitatzeko gure e’riari!  
Ai, ai, ai, mutiñak, gure e’riari!

—————  
Euskaleriko esia euskera dezute!  
Esia botaz gero, galduak zerate!  
Ai, ai, ai, mutiñak, galduak zerate!

—————  
Aur’ekoak bezela euskaldun gazteak  
izan bear zerate euskera zaleak!  
Ai, ai, ai, mutiñak, euskera zaleak!

—————  
Eutsi, eutsi, gazteak zeren euskerari!  
Gogor egiozute, bere etsaiari!  
Ai, ai, ai, mutiñak, bere etsaiari!

—————  
Euskaldun gazteriak batera zaitzete!  
Gure e’ria zaintzeko eder eta gazte!  
Ai, ai, ai, mutiñak, eder eta gazte!

—————  
Gure e’riko txokotan laberderak sartu!  
Etxe, soro, mendiak nai dizkigu artu!  
Ai, ai, ai, mutiñak, nai dizkigu artu!



Gure eritako giltzak nai lituzke eskutan!  
Ta juskaldun txuruak! ematen askotan!  
Ai, ai, ai, mutiñak, ematen askotan!

Gernika'ko arbola  
da bedeinkatua  
euskaldunen artean  
gutziz maitatua;  
eman da zabal zazu  
munduan frutua  
adoratzen zaitugu  
arbola santua”.

---

Euskalduna: euskera dezu giltzaria!  
Bere eskuz gorde zagun gure ataria!  
Ai, ai, ai, mutiñak, gure ataria!

---

“Ai, Ai, Ai Mutillak, txapela gorriak” delako kantaren doñu ta neurri berdiñak dauzka kantu onek. Kanta ori oso eratua zela karlisten guda garaian, Euskalerrian aitortu bear. Garai artako kutsua dauka kanta orrek. Orduko aberzaleen garaiko abestia zen. Giro ori aitortzen du. Nortzuk ziren orduko aberzaleek? Txapel gorria jantzi ta mendira tiroka zijoazte-nak, esango genuke. Fuero zaleak, edo Lege-zarraren gudariak ziren. Eta besteengatik nola bereixten ziren? Txapel gorriaren bitartez agertzen zuten Euskalerraren miña ta gogo. Orduko aberzaleen oiua zen.

“Euskal erri maitea” delako kanta au, oraingo kantu onek, ain zuzen, beste kantu orren doñua ta neurriak dauzka eta ortik artu ditu.

Noiz sortu ote da kanta au, oraingo au? “Txapel gorria” esaten duna Karliseen gudeen garaikoa izango zen eta beste au jaioko zen karliseen borroka amaitu ondorean.

Ikus J. Vinson'en agerpena. Karlisten lenengo guda garaiko abestia, “Azpeitia'ko neskatchak” da (Le Folklore du pays Basque, Paris 1883, or. 123). Gero “nola du izena?” delako abestia jaioko zen. Karlisten guda ondolik, oraingo au, euskera aipatzen duna.

Doñu ta neurri berdiñak dauzkate bi kantak, bañan mezua ezberdiña. An “txapel gorria” danez gain, emen berriz “euskara”. Emen euskera, kantu onetan txapel gorriaren mallan jarria dago, Doñu berdiñekin itzak aldatuz, euskara agertu nai dute, txapel gorriaren orde, orduko aberzaleen ezaugarri bezala. Aldaketa ori da garrantzi aundikoa. Ortxen arkitzen dugu zeresannai aberatsa. Ziurasko karlisten guda ondolik, ezinezkoa izango zen karlistentzat mendira ateratzea txapel gorriarekin. Orduntxe euskarak artzen du txapel gorriaren tokia. Karlisten guda ondorik, euskaraz egiten duna da.

Etxarri'ko orri orrek, alde bat oso osorik betetzen du. Luzea da egiz.

Arritzekoa bañan egia: emen azaltzen dugun kanta au ez dago beste iñun argitaratua, batez ere euskal kantuen bilduma eder edo ezagun oietan. Bakar bakarrik, Artxulo baserrian arkitutako papertxo orretan ikusi

dugu argitaratua. Egillearen izena ez dugu ezagutzen. Egille ori norbait zen, bai doñu, bai izkuntzaren aldetik.

Zer esaten du kanto onek? Euskalerrriaren muña ikuitzen du barren barrendik. Euskalerrriaren maitasuna bizkortzen du, euskarazaleak izaten gogoratzen, aberria zaindu bearra, euskaldunak ezin dula euskara utzi edo zokoratu. Izkuntza euskaldunaren atsa da ta etsaiak nolabait zokoratu naiko lukete. Kantu onen bitartez nai zuten euskararen itzala zabaldu ta sendotu.

Izkuntzaren aldetik euskara ederra dabilki, errikoia, garbia. Itzak ondo aukeratuak dauzka. Kantu onek Euskalerrria ta euskara batutzen ditu.

## **KANTA IÑOIZ ARGITARATU GABEA**

Azkenean dator kanta luzea, ezagutzen eta ikusten ez dena eresi bildumetan. Ez da beiñere jasoa izan. Artxulo baserrian arkitu dute eskuz idatzia. Orri batzuek ondo ondatuak daude.

### **10.– “URBIAKO ERMITAREN BERSOAK”**

Eskuz idatzitako paper baten berriak jasotzen ditugu, an dauden bezala, Amasei estrofa ditu, bakotxa zortzi lerrokoa.

Toki batzuetan estrofeen zenbakiak ez dituzte idatzi (I-II). III'garrena ez dago. VIII'garrena bakarrik. XII'garrena ez dago, XIII'garrena erdia baizik.

Estrofa oiek bersuen kutsue daukate.

Elburua: Amabirgiñaren agerketa artzai bateri. Arantzazu'n elizatxo bat altxatzea oroitu arazten du, elizatxoa artzaiak Meza entzun dezaten. Danen laguntzarekin altxatua dago.

Jai aundia egiten diote Amabirginari: Aurresku dantza ta Ezpata dantza danboliñekin. Itxaropena eskatuz amaitzen da.

Bersolariren baten lana da, giro orretan jaioa.

Ez dago iñun jasoa. Ez da beste iñungo bildumetan argitaratua agertzen.

Erriko euskara dabilki, eta izkuntza obegotzen alegintzen da... Ba dago garbitasuna, jakintza ta euskara.

Itz batzuk berexiak dire: “Erpin”, “distakari”, “Ipiñi”. Erri-euskara baño zertxo bait egokiagoa edo egokitua. Bertako euskara idatzita eskuratzen zaigu.

“ERRODRIGOTXO JOAN ZANEAN  
ARDIENGANA MENDIRA  
ANTXEN ZEGOAN BIRGIÑA ARANTXAN  
ARTZAI TXORI BEGIRA

ERRODRIGOTXO BALTZATERICO  
ERMITATXOA EIDAZU  
ERMITATXOA EIDAZU ETA  
NEREA IZANGO ZERA ZU

IRU LATA TA ZAZPI TELLATXO  
ASTEKO ASCO DITXUZU  
ELIZA AUNDITZEN DANEAN BIAR  
AUNDIAGOA BEARCODU

ERRODRIGOTXO LASTER JOANZAN  
OÑATIAKO KALERA  
ELIZ GIZONAI BERTAKO DANAI  
BERRIONA EMATEA

OÑATIARRAK LASTER JOANZIRAN  
PROCESIOAN MENDIRA  
ANTXEN ZEGOAN BIRGIÑA ARANTZAN  
SEMIBERRIARI BEGIRA

NERE EUSKAL SEME  
ONDANOK EMEN  
IZANGODUTE OSTATU  
IZANGODUTE OSTATU ETA  
EUSKAL MEZA NON OPALDU”

## **ARTXULO’KO KANTUEN BILDUMA TA KOPUROA**

Gaur arte, Artxulo delako baserrian, azken baserri euskalduna Napa-  
rroa’n Egoalderuntz, lan onen bukaeran auxe da jakin dezakeguna garbi  
asko: ementxe egiten ziren kantu guztiak, lenengo lanaldian, orain dela  
ogeitabortz urte ogeitabat kantu dire. Oraingo aldian, bildutako kantu  
berriak, ogeitabortz urte geroago, AMAR DIRE: DANETARA  
OGEITAMAIIKA KANTU ZAR DIRE.

Kanta bat, bi aldiz zenbatua dago, baiñan berdiña da. Lendabiziko bil-  
duman motza bezala ta atseskian askozez luzeagoa. Orregatik bildutako  
kantik OGEITAMAIIKA KANTA DIRE.

Orrelako zerbait gertatzen da beste ereduetan, baiñan emen ere alda-  
ketak daude idazkian eta aldaketa oiek idazkietan gogoan artzen ditugu.

Ogeitamaika kanta zar oietatik, lan bilduak eta oraingo berriak, oraindik iñun jasorik gabeak emeretzi dire. Ementxen jartzen dugu, kantu oien zerrenda. Amalau, asiera artako garaikoak dire eta bost oraingo aldi onetan bilduak.

Ara emen zerrenda, kantuen izenekin:

- SAN MIGEL'EN KANTA ZARRA
- ARANZAZUKO AMAREN
- TXEKORRENA
- ANKA MOTZA
- MAÑERU'N KARGATU
- GALTZAK JARIO
- NOBIOENA
- LEKUNBERRIKO ZERRI AZALARENIAN
- GURUTZE SANTU ORI
- ALEMANAK ETA FRANZESA EN GUERRA
- OTSOAK ASTOA NAI ZUEN
- SUGANDILLA KUSKUR  
(ORAIN KANTA LABURRAK)
- ALKARRI TAPUE BOTATZEN
- ARDIA ZEZIN
- AI AI AI MUTILLAK
- JESUS MAITEA AIZKORRI'N DAGO

Oraingo onetan aozko literaturan bildutakoak:

- AITA CHIT MAITE
- BENETAN KRISTORENAK
- BERTSUKETAN ARI DIRE
- EUSKALERRI MAITE AI AI AI
- URBIAKO ERMITAREN BERSOAK

Gañera, atseskian beste bost kantu zarrak, beste nunbait bildutakoetatik, emen gure bilduma onetan luzeagoak dire, berri geiago ematen digute.

- ASKOTXO EDAN BANUEN
- BENTERUAREN TXERRIAZ
- MAÑERU'N
- BERTSUKETAN ARI DIRE
- EUSKALERRI MAITEA

Artxulo baserriari esker, anitz ikasten du Euskalerrriak kulturaren alde-tik.

Ez begiratu nolana baserri au, oso berexia bezala baizik. Alaxekoa da. Benetan arrigarria kanta zar auekin jakin duguna.

Euskalerrrian, batzuek ipuiak esateko doai berexia daukate, eta besteak bersoetan jardunteko. Ortik sortzen zaizkigu abeslariak. Abesti oiek

sendian irauten dute luzaro. Abesti oiek izan ditezke bertan ikasiak, edo auzotik ekarriak. Aozko literaturan gertatzen dena, orixe bere ikusten dugu abestiekin. Obeto egiten zaien bezala moldatzen dituzte itzak eta doñuak. Nola ez?

Garbi ikusten duguna auxe da: aozko literatura idatzitakoakin, bata bestearen ondoan bizi dira etxe berdiñean. Ala guztiz ere aozko literatura asko aldatzen da ta bere orretan irauten du. Aozko literatura irabazle gelditzen da.

## **ESKER ONAK**

Lan au amaitu aurretik, eskerrak emateko garaia dator. Aurrena Jose Maiza'ri. Kantu interesgarri auen berriak berak eman zizkidan. Gizon orren egokitasuna aundia zen.

Jose Maiza'ren sendiari eskerrak luzatu bearrak ditut. Bat batean lagundu didate, aldiro, argitasuna eskatzen niela. Batez ere Maritxu Maiza geiena ikusi dutena, sendiakin arremanetan nerekin jartzeko izendatua zeukatena.

Gero oso ondo lagundu nautenak dire "Euskal Ereslarien Bilduma" delako Errenderi'n dagon egoitzaren arduradunak, batez ere orko lendakariak, Aita Kaputxinoa Jose Luis Ansorena Miranda, baita oso berexiki orko langille batek, Beatriz Balerdi izendunak. Neska jator onek ikaragarritzko lana egin du ta asko lagundu nau: ordurako bilduma aundietan jasoak ote dauden, ikusi. Lana aundia ta garratza. Nere esker beroenak bidaltzen dizkiot.

Laguntza berdiña eskeñi didate Donosti'ko "Xenpelar Dokumentazio Zentroa" delako autapenak, batez ere orko zuzendariak Arantxa Mariscal. Emakume argi onek bere gain artu du lan zailla: Artxuluko kanta zarren iturria bersolarien artean aurkitzen ote zen. Balio aundiko laguntzalea izan da.

## **LIBURUEN ZERRENDA (BIBLIOGRAFIA)**

- Jules Vinson, *Le Folk-lore du Pays Basque*, Paris 1883.
- Xenpelar'en bertsuak, Errenderi 1933.
- P. Donostia y P. Riez, *Cancionero Vasco*, Errenderi 1994.
- J. Dorronsoro, *Bertsu Doñutegia*; Donostia 1996.